


Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko ekainak 5 • 123. zka.



Parapentean


txorien moduan hegan

San Clemente proiektua ■ Ekaina musikala ■ Tito Etxeandia

libro
sol
casa
euskara
+ ikastolak



Euskararen aldeko Txartela





Egingo zenuke salto parapentean?

Celia Garcia

(Ikaslea)

Ez, ez nuke salto egingo. Arriskutsua dela uste dut eta beldurra emango lidake.

Puentina ere ez nuke egingo eta ezta urarekin zerikusia duten kirolik ere.



Manu Altube

(Langilea)


Gustatuko litzaidake salto egitea, baina aukera izan behar da. Kirolak oso erakargarria ematen du. Gero momentuan ez dakit ausartuko nintzatekeen. Arrisku bat beti egongo da beste kirol batzutan moduan.



Justo Hernandez

(Langilea)

Ez. Esperientzia polita izan behar du baina ni ez nintzateke salto egitera ausartuko. Errespetu handia ematen didate horrelako kirolek.



Conchi Ferrera

(Langilea)

Ez dakit, agian bai. Bildur pixkat ematen dit, baina gustatuko litzaidake zer den jakitea. Bere arriskuak izango ditu, baina teknika jakinda eta baldintza onetan bota ezker... Politia izan behar du.



eskutitza



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Eskerrik asko

Lerro hauen bitartez, Leizarra Musika Eskolako ikasle guztiak Trintxerpera joan izana eskertu nahiko nuke.

Bestalde, Aretxabaletan eta hemendik kanpo egingo diren hurrengo musika topaketa edo aktibitateetan parte har dezaten, guztiak aurrera jarraitzeko animatzen ditut.

Azkenik, aurreko larunbatean gurasoak Trintxerpera gurekin batera joan izana eta beraien laguntza eman izana eskertzea nahiko nuke, azken hauek gabe aktibitate hauek aurrera eramatea oso zaila izango baitzen.

ESKERRIK ASKO

MARIATXEN URKIA

Leizarra Musika Eskolako Zuzendaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantzazu Zuazabeitia, Inma Miguel, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Legedordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



San Clemente, Hiruatx elkartearen proiektu berria

- ❑ Bukavu proiektua gelditu dago momentuz.
- ❑ Proiektu berriaren bidez bertako nekazaritza garatu nahi da

Hiruatx, Hirugarren Mundu Taldeak, proiektu berria du eskuartean: San Clemente proiektua. Colónbiako nekazari-komunitate pobreekin elkartasuna erakutsi nahi du proiektu berri honek. Beste aldetik, Bukavu proiektuarekin gelditzea pentsatu da, momentuz behintzat, bertako egoera dela eta ezin baita proiektua aurrera eramán.



San Clementeko nekazaritza garatu nahi da proiektuaren bidez

San Clementeko egoera

San Clemente Colónbiako mendebaldeko Andean kokatua dago, 2.100 metrotara. Leku hotza da, lurra eskasa, eta nekazariak pobreak.

Nekazaritza oso primarioa du, tresneria egoki barik. Umeek desnutrizio arazoak dituzte. Pobretasun eta langabezia arazo larria da. Ondorioz, gazteak hirira joaten dira.

Egoera honi irtenbide bat emateko nekazari komunitateetan nekazaritza

indartzea pentsatu dute.

Nekazaritza garatu

San Clementen dagoen ikastetxeak arazoak ditu garapena bideratzeko. Nekazari komunitateetan nekazaritza indartzea da helburu nagusia, honako emaitza hauek lortzeko: nekazaritzan oinarritutako garapen ekonomikoa, umeen elikadura hobea eta gazteak bertan gera-

tzea.

Hau lortzeko herriko taldeak Nekazal industriarako programa bat bultzatzeko elkartu dira eta proiektua bideratzeko laguntza eskatu dute.

Hiruatxek bere aldetik honako laguntzan parte hartuko du: esnea bildu, tratatu eta saltzeko tresneria ekipatzea, honela komunitatearen garapenari oinarriak jarri.

Kostua 8 milioitakoa da eta kantitate hau lortzeko urtebeteko epea jarri dute, hasiera batean behintzat.

Proiektu honetan laguntzeko bi kontu korronte zabaldu dira: kutxa: 0010636694 eta Euskadiko kutxa: 1420010633.

Sebastian Uribetxebarria bideratzailea

Sebastian Uribetxebarriak, Aretxabetako Urkulu baserrian jaiokak, 24 urte daramatza Colombian nekazaritza garatzearen alde lanean. Nekazaritzako Tekniketan Titulaturia da, eta ondo ezagutzen ditu San Clemente bezalako tokietan nekazaritzak dituen arazoak eta irtenbideak. San Clementeko ikastetxeko zuzendaria da. Ikastetxe hau bertako nekazaritza bultzatzen eta gazteak horretarako formatzen ari da batez ere.

ZARAIA TABERNA
Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
Bazkari eta afariak
MENDIOLA
Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

LOGOPEDIA ZENTRUA
ARRASATE
HIZKUNTZ-ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR-IDATZ ARAZOAK
Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

T X I L A R R A
ELIKADURA BEREZIA
Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15
Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALET

Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta
Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina



Udaleku irekiak gaztetxoentzat

□ **Uztailaren 1etik 18ra ondo pasatzeko aukera izango dute umek Ortzadar Atsedeen taldearekin**

Beste behin ere, Ortzadar Atsedeen taldeak 3urte-tik 14ra bitarteko gazteentzat udaleku irekiak antolatuko ditu. Udalekuak uztailaren 1ean hasi eta 18an bukatuko dira. Goizez, 10etatik 12,30etara eta arratsalde 3etatik 5etara ongi pasatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Udalekuetan izena emateko Ortzadarreko loka-

letik pasatu beharko da, izen emate orria beteta. Bertan adieraziko da egin-beharreko guztia. Ekainaren 9tik 20ra bitarteko epea egongo da horretarako eta gogoratu Ortzadar atsedeen taldeko ordutegia arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara bitartekoa dela. Informazio gehiagorako deitu 79 01 84 telefonora.

Plazako zuloa haundituko da

San Juan bezpera gainean dugu eta Santa Ageda mutilek tantaia moztu eta plazan altxatzeko ohiturarekin jarraituko dute. Orain artean arazo dexente izan dira tantaia, pinua kasu gehienetan, plazako zuloan sartzeko. Hori dela eta, segurtasun neurriak hartu dira eta plazako zuloa haunditu egin da. Alde batetik, 30 zm-tik 50 zm-ra haundituko da zuloaren diametroa eta beste aldetik, sakontasuna ere haunditu da: 60tik 100 metroko sakontasunera. Modu honetan bai gabonetako eta bai San Juan bezperako zuhaitz altxatzean segurtasun neurri hobeak izatea espero da.

Andramaixetako kartel lehiaketa

Andra Mari jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa antolatu du kultura batzordeak. Lehiaketan edozein atxabaltarrek har dezake parte. Teknika libre izango da eta kartelaren neurria: 50x70 zm. Formatoak, nahitaez bertikala izan beharko du. Informatika euskarrian (disketea) ere aurkeztu ahal izango da kartela, Din A3 tamainako paperean inprimatua.

Kartelak derrigorrez ondorengo testua izan beharko du: Andra Mari jaiak 97/abuztuak 14, 15, 16 eta 17/Aretxabaleta.

Irabazlearentzat 40.000 pezetako saria egongo da. Kartelak aurkezteko azken eguna, ekainaren 27a da, kultur etxera ekarri beharko dira. Erabakia uztailaren 6an emango da jakitera eta epaimahaia kultura batzordearekin batera herriko hainbat pertsonen osatuko du.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

JOSU

HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

OSKAR

HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 79 71 69

Hitzarmen teknikari lanpostua

Loramendi euskera elkarteak hitzarmen teknikari lanetarako pertsona bat egun erdiz kontratatzeko asmoa du.

Hori dela eta, Loramendi Euskara elkartearen lanpostu hori betetzeko izena eman nahi duenak Loramendiko loka-

letik pasa beharko du edo eta 77 09 70 telefonora deitu. Lanpostuari buruzko informazio zehatza, lan baldintzak, e.a. jasotzeko eta izena emateko ekainaren 13a, eguakotxa, izango da azken eguna. Izena ematearekin batera curriculum fitxa beteko da.

Ekaina musikala

Ekainean zehar hainbat musika ekitaldi antolatu da Leizarra musika eskola eta Aretxabaletako abesbatzaren eskutik



Ekainaren 15ean kontzertu lirikoa egongo da, zarzuela, operaren aria eta romanzak eskainiko dira

Leizarra musika eskolak Aretxabaletako abesbatzaren laguntzaz hainbat musika ekitaldi antolatu du ekainerako.

Ekainaren 15ean kontzertu lirikoa egongo da, Zarzuela, Operaren aria eta romanzak eskainiko dira. Mariatxen Urkia sopranoa, Aitor Kamiruaga baxua eta Isabella Blezien izango ditugu kontzertu liriko honetan parte hartuko dutenak. Arratsaldeko 7etan izango da Andra Mari parrokian.

Egitarauaz jarraituz, ekainaren 16tik 19ra bitartean Leizarra musika eskolako ikasleen kontzertuak entzuteko aukera

izango da. Egun hauetan zehar arratsaldeko 6etan izango dira emanaldiak musika eskolako aretoan.

Organoak, txistuak eta koruak beteko du hurrengo ekitaldia ekainaren 20an. Emanaldia gaueko 9,30etan izango da Andra Mari parrokian.

Ekitaldiekin bukatzeko ekainaren 21ean musikaren egun berezia egingo da. Dantzariak, txistulariak, akordeolariak, trikitixak eta bandakoei kalejira eta kontzertua eskainiko dute. Arratsaldeko 6etan izango da Herriko Plazan.

Musika eskolako matrikulazio epea zabalik

Ekainaren 2tik 18ra bitartean musika eskolan matrikulazioa egiteko epea zabalik dago. Datorren ikasturteari begira badaude berrikuntza batzuk. Alde batetik, bibolina jotzen erakutsiko da. Beste aldetik, lenguaia musika bukatzen dutenentzat musika kultureko asignatura gehigarriak ere emango dira.

UEU ikastaroak

Aurten 25. urteurrena beteko dute Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak. Bi lekutan burutuko dira: Baionako René Cassin Lizeoan, uztailearen 7tik 12ra bitartean, eta Iruñeko Larraona Ikastetxean, 14tik 26ra. Gai asko jorratuko da ikastaroetan: Bizikletaren fisika, Gazteak eta Euskara, Sexualitatea, Euskal irratigintza eta publizitatea, Grafologiako ikastaroak... Baionan. Irunean, besteak beste, Web ikastaro praktikoa, Euskal Kirol Selektzio Nazionalak, Euskal Herria eta Eliza... Aipatutako hauez gain beste hainbat ikastaro interesgarri aurki daitezke UEUn. Matrikulazio epea ekainaren 2an zabaldu eta 30ean itxiko da. Informazioa jaso edo eta izena emateko 909 42 15 57 Pili Kaltzada.

JOSE MARI

bodegoia


- < Eguneko menua
- < Bataioak
- < Jaurnartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45
ARETXABALETA

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdia 1-0-4
Tfnoa: 791844
Fax: 792941

Urkulun kontenedorerik ez

Frogatuta dago kontenedoreak uzten diren lekuan, ingurua gehiago garbitu beharrean degradatu egiten dela: usaina, zikinkeria, animalien inguraketa..."



Aurreko Aretxagazetan Urkulu eta Azatzako eliza ondoko zaborrari buruzko eskutitza argitaratu zen. Udaletxeak bere partetik herritarren kezka eta ardurak Aretxagazeta aldizkarian argitaratzea eskertzen du. Beste aldetik, erantzuna eman nahi izan dio eskutitzari. Udaletxeo auzoetako zinegotziak, Jesus Kortabariak eta zerbitzuetako zinegotziak, Luis Errastik, zaborren inguruan Udalak duen filosofia azaldu dute.

Urkulu inguru naturala den aldetik babestu egin behar da eta bertan kontenedoreak jartzea ez da irtenbidea euren adierazpenetan. "Frogatuta dago kontenedoreak uzten diren lekuetan, ingurua garbitu beharrean degradatu egiten dela: usaina, zikinkeria, animalien inguraketa... eta herritar askok zaborrak bertara eramateko ohitura txarrak hartzen ditu".

Kontenedoreak jartzeak beste aldetik, 24 ordutan zaborra bertan egotea esan nahi du, zaborra bertan pilatzea. "Hori ez da, beraz, irtenbidea, eramaten dena ekarri egin behar

da. Horrek ez du esan nahi zakarrontziak jarriko ez direnik".

Alde horretatik, Urkulu moduko leku naturaletan, eta ingurugiroarekiko heziketaren barruan zera uste du: norbere zaborren erantzunkizuna izan behar duela herritarrek. Filosofia eta heziketa beraren barruan, zaborra gutxitu, berrerabili eta berziklatzera pausoa eman behar da.

Udalak bere aldetik, Urkuluko egoeraren jarraipena egingo du.

Urkuluko seinalizazioa

Urkulura bidean dagoen seinalizazioari buruzko artikuluari ere erantzuna eman dio Udalak. Urkulura doan bidea Diputazioarena da eta Udalak bere aldetik Diputazioari emango dio honen berri, Basabe baserriaren aurrekaldean dagoen seinalizazioan "Urkulu" ere seinalizatzeko proposamena luzatuz.

Edozein herritarren proposamenak eta jarrerak entzuteko beti gertu egongo da Udalak. Era berean, Aretxagazeta, aproposa izan daiteke herritarren kezka eta proposamenak jakitera emateko.

Murruxoko piragunistek Urkulu erabili ahal izango dute

Joan zen ostegunean, maiatzak 29, Urkuluko urak piraguismorako erabiltzeko Murruxok egindako eskaerak bere oniritzia jaso zuen.

Orain arte baimena ikastaroak egiteko bakarrik izan ohi zen, aurten lehenengo aldiz federatuek aukera izango dute urtegi nahi dutenean ibiltzeko. Horretarako, ordea, bai ikastaroa egiten ari direnek, bai kirolariak, Gipuzkoako Ur Kontsultazioak jarritako arauak bete beharko dituzte, beste urte batzutan bezala.

60 metro baino aurrerago ezingo da hurbildu ez irlara, ezta hormara ere; kanaletik ere ezingo da pasatu. Era berean hegaztiak ez dira zirikatu.

Aurreko urteetan Murruxoko bazkide federatu bat bere lagunekin piraguetan ikustea normala bazen ere hau ezingo da errepikatu, piraguak federatuek bakarrik erabil baititzaizkete. Arazorik egon ez dadin beti federatu karneta N.A.N.rekin batera eraman beharko da; urtegi arduradunak eta ertzantzak federatuen zerrendarekin kontrolatuko baitute.

Murruxoko piraguisma sailean gaur egun hamahiru federatu daude, baina hurrengo hilabeteetan gehiago izatea espero da. Federatuei seriotasuna eskatzen zaie eta denen onerako arauak bete ditzatela, bestela kalteak guztiek jasango baitituzte.

Zerbait nahi izanez gero eta karnetak jasotzeko asteartean 7,30etatik 8,30arte Murruxiko lokaletik pasa edo Felis Beltran de Herediarekin jarri harremanetan.



Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABAETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34

Txoriak moduan hegan egiten

Datorren ekainaren 8an, parapente zaleen kontzentrazioa izango da Kurtzebarrin.

Salto egiteko baldintzak egokiak badira behintzat, Urkulu urtegirantz egingo dute hegan. Arrasateko Ikarus delta eta parapente taldeak antolatu du kontzentrazioa eta jende dexente animatuko dela adierazi dute.

Gure herrian ere baditugu zaletuak. Aitor San Migel, Aitor Bengoa eta Josu Lanzosek orain hilabete batzuk bukatu zuten ikastaroa eta dagoeneko egin dituzte lehen saltoak inguruko mendietan.

Hegan egiteak irrika sortzen du gizakiarengan eta halaxe gertatu zen, Aitor San Migel, Aitor Bengoa eta Josu Lanzosekin ere. Hegan egitea zer zen jakiteko gogoak eraginda alde batetik eta kirol horrek erakartzen zituelako beste aldetik Altsasun egin zuten parapente ikastaroa. Modu honetan mintzatzen dira: "mendira igo eta oinez jeitsi beharrean hegan jeisten gara, beste aukera bat da".

Ikastaroan lehen saltoak

Ikastaro teoriko eta praktikoa egin zuten hiru lagunek Altsasun. "Parapentean ibiltzen zen lagun bati galdetu genion non ikas zitekeen". Urrian izango dira bi urte Josu eta Aitor San Migel hasi zirela, Aitor Bengoa, berriz, iazko uztailean hasi



Aitor San Migel, Aitor Bengoa eta Josu Lanzos Urkulun Kurtzebarritik salto egin ostean

zen. Tarte luze honetan, aste bukaera asko pasatu dituzte Altsasun, zapatu eta domeka. Batzutan etxera ere bueltatu behar izan dute, salto egiteko baldintza egokiak ez zeudelako.

Hasiera batetik teoria eta praktikan oinarritu zen ikastaroa. "Teoriak garrantzi handia du kirol honetan. Irteerak nola egin, salto egiteko baldintzak, nola lurreratu, manejoa, teknikak..." Praktikako lehen ariketak malda txikietan hasi ziren eta poliki-poliki malda handiagoetara pasatuz. "Lehenengo egunetik parapentea jarri ziguten bizkar gainean". Lehen saltoa Trebiñon dagoen San Formerio mendixkatik egin zuten. "Talkiekin salto egin genuen eta irakasleak zer egin behar genuen esaten zigun". Lehen saltoa beti izaten da berezia eta hankak dardara baten zituela gogoratzen du Aitor Bengoak.

Lehen saltoan eta gainontze-koetan sentitzen dena ez dela ber-

dina diote. Gero eta gehiago praktikatuz, gero eta gehiago kontrolatzen da tresna.

Kurtzebarri leku egokia

Ikastaroa bukatu zutenetik bi hilabete pasatu dira eta salto gehiago ere egin dituzte euren aldetik: San Migel, Santa Marina, Kurtzebarri...

Hemen inguruan Kurtzebarritik egin zuten lehen saltoa. Inguruan dagoen mendi aproposena ei da kirol hau praktikatzeko dutenen adierazpenetan: "Irteerak egiteko oso leku ona du, gainera airean mantentzeko "ladera egiteko" aukera eskaintzen du eta lur hartzeko ere aukera aproposak ditu inguruan". Eskualdeko parapente zale asko etortzen da Kurtzebarri salto egitera. Ipar haizea dagoela kontutan hartu behar da salto egin aurretik.

Hemen inguruan Murutik, Aloñatik eta Udalaizetik ere salto

egiten du jendeak. Udalaitez bi aukera eskaintzen ditu, zein alde-tara salto egiten den arabera, bai hego edo baita ipar haizeaz ere.

Kirol arriskutsua da?

Tresna hauekin ibiltzea jende askok arriskutsua dela uste du, baina kirol hauen zaleek ez dute hori uste. "Argi eta zuhur ibili beharra dago, salto egin aurretik baldintza egokiak dauden ziurtatuz". Salto egiteko baldintzak egokiak badira eta beharrezko neurriak hartuta ez du zertan kirol arriskutsua izan behar. "Guk ez dugu edozein lekutatik salto egiten. Leku aproposetatik salto egiten dugu eta baldintzak egokiak direnean. Orain arte behintzat susto haundirik ez dugu hartu".

Baldintzak egokiak ez direnean, behera oinez jeitsi behar da. "Orain arte behintzat zorte ona izan dugu eta ez dugu 15 kilotako motxilaz igo ostean, oinez jeitsi beharrik izan".

Kontuan hartzekoak

Parapentean saltoa eman baino lehen begiratu behar da parapentea egokituta dagoen eta pertsona behar bezala lotuta. Mendiaren orientazioa eta haizearen norabidea ere kontuan hartuko dira. Haizea beti kontrari parapentea puztu ahal izateko eta irteerarako 30 km orduko abiadura baino gutxiagokoa behar da, bestela irteera arriskutsua izan daiteke. Mendira igo baino lehen lurreratzeko lekua erabaki behar da eta bat baino gehiago izanez gero, hobeto, saltoa ematen denetik lurreratu arte zer gerta daitekeen jakiterik ez dago.

Arropari dagokionez kaskoa eta guanteak derrigorrezkoak dira. Trekinetako botak erabiltzea gomendatzen da lurreratzeko orduan orkatilan minik ez hartzeko eta gorputzerako arropa eroso eta beroa janztea.

Tresna manejatzeko, bi eskuak erabili behar dira. Eskuekin frenatu egiten da eta ezkerredera edo eskuma-

ra biratzeko ere erabiltzen dira. Hankekin, berriz, azeleratu egiten da.

Gero eta zaletu gutxiago

Badirudi orain urte batzuk boom bat egon zela kirol honetako zaletuen artean. Gaur egun zaletuen kopurua gero eta txikiagoa dela esan digu Ana Diaz Arrasateko Ikarus delta-parapente taldeko zuzendariak. "Gure taldean oso jende gazte gutxi dago eta taldeko gehienok aspaldi ikasitakoak". Hainbat faktorek izan dezakete eragina honetan: ikasteko aukera gutxi daudelako eta garestia delako. Parapente eskola gutxi daude hemen inguruan: Irunen, Sopela-

nan, Gasteizen... Gainera nahiko kirol garestia da. Ikastaro batek 35.000 pezeta inguru balio ditu eta parapente batek 300.000 pezeta inguru. Bigarren eskuko parapenteak merkeago lor daitezke, 100.000 ptan. Beraz, edozeinek ez du kirol hau praktikatzeko aukerarik.

Hegan egitea polita dela esaten dute San Migel, Aitor eta Josuk. Paisaia mendi puntatik ikusten den antzera ikusten dela handik goitik, baina paisaia bertikalki ere ikusten dela. "Arientzako baserriak goitik ikustea edo Koruetako elizaren punta... bertikalitateak mendiak ematen ez duen paisaiaren ikuspegi berria ematen du".

"Kurtzebarri kirol hau egiteko hemen inguruan dagoen mendi aproposena da"



Ikastaro batek 35.000 pezeta inguru balio ditu eta parapente batek 300.000 pezeta inguru.

I. go pala txapelketa semifinaletan



Pala txapelketako partaide batzuk

Udaberriko I.go Pala Txapelketako lehen fase gogorra eta lehiatsua jokatu da. Datorren astebukaeran lehenengo sailkatu diren lau bikoteek semifinal eta finalak jokatuko dituzte, eta baita hurrengo laurak ere. Beraz, datorren zapatuan honako partiduak ikusteko aukera izango da kiroletxean.

Goizean, Unanue/Irure-Sarasua-Sarasua eta Zugasti/ Berasaluce-Sarasua-Bengoia.

Arratsaldean berriz, Jausoro/ Oskoz-Garcia/Iturricastillo eta Agirre/Uribe-txebarria-Madinabeitia/Antxia.

Sailkapena:

Jokalariak	P.A.	P.K.	P.I.	P.G.	Guztira
1.- Unanue-Irure	346	166	9	1	9 puntu
2.- Madinabeitia-Antxia	332	259	9	1	9 p.
3.- Agirre-Uribetxebarria	308	257	8	2	8 p.
4.- Sarasua-Sarasua	295	205	6	3	6 p.
5.- Zugasti-Berasaluce	327	245	6	4	6 p.
6.- Jausoro-Oskoz	312	273	6	4	6 p.
7.- Garcia-Iturricastillo	230	278	4	5	4 p.
7.- Sarasua-Bengoia	261	313	3	7	3 p.
8.- Aldai-Txantxiku	240	316	2	8	2 p.
9.- Fernandez-Iturbe	165	340	1	9	1 p.
10.- Lanzos-Arana	147	350	0	10	0 p.

Oihana Mata eta Haritz Kortabarria txapeldun Deba Garaiko finaletan
Maiatzaren 24an jokatu ziren eskuz binakako alebin mailako pelota txapelketan garaile atera ziren Oihana Mata eta Haritz Kortabarria atxabaltarrak. Finalak Antzuolan jokatu ziren eta gure herriko pelotari gazteek Eskoriatzako bikotea izan zuten aurrez-aurre. Aurreko garaipen honez gain beste bat ere lortu zuten Oihana eta Haritzek. Domekan, maiatzaren 25ean Zaramagan, Gasteizen, jokatu zuten eta kasu honetan ere garaile atera zen bikotea. Zorionak eta aurrerantzean ere horrela jarrai dezala.



BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

BEIRALAN



KRISTALDEGIA


Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

KIXKOR TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta




ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira


Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

◆ Parrila espezialitatea



GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 79 68 57



Hamar bikotek jokatzeko Murubideko eskuzko pelota txapelketa

Murubideko eskuzko pelota txapelketak

Orain hiru urte antolatu zen lehen aldiz Murubideko eskuzko pelota txapelketa. Auzo inguru horretako koadrila batena izan zen inizatiba. "Pelotan jokatzeko hasi baino lehen bizikletan ibiltzen ginen taldetxo bat. Txikiteoan egin beharrean pelotan jolastea pentsatu genuen" azaldu digu Jose Ramon Kintanillak txapelketako antolatuzaileetarikoa batek.

"Lagunen artekoa izatea nahi genuen eta orain ere horrela izaten jarraitzen du. Hala ere, jende askok azaldu digu jolas-teko interesa, baina honek seriotasun gehiago eskatzen du". Nahiago dute laguneren arteko txapelketa soil bat izatearekin.

tearekin.

Murubideko frontoia erabiltzen dute partiduetarako "nahikoa da guretzat".

Guztira 20 lagunek parte hartzen dute txapelketan, 10 bikote danera.

Txapelketa maiatzean hasi zen eta dagoeneko lau ihardunaldi jokatu dituzte. Bikote guztiek elkarren aurka neurtuko dituzte indarrak, ondoren semifinalak eta finala jokatzeko. Bukaera sariekin eta afari ederarekin ospatuko dute uztailearen 19aren aldera.

Kirola eginez ondo pasatzeko aukera ederra da hau "guk oso ondo pasatzen dugu eta hori da garrantzitsua".

XIX. orientazio ibilaldia



EMF, Euskal Mendizale Federakundeak antolatzen duen orientazio ibilaldia Aretxabaletan egingo da ekainaren 15ean. Ibilaldia norberak hautatu ditzakeen bi ibilbidez osaturik egongo da eta aurtengo Federazio-txartela indarrean izatea beharrezkoa izango da.

Ibilaldiaren antolakuntza Murruxiko M. E.aren esku egongo da. Ibilaldia Aretxabaletan egingo da eta irteera Herriko Plazatik izango da goizeko 8,30etan edo 9,30etan. Ibilbide bi izango dira: bata luzea 15 km. eta zortzi kontroletakoa eta, bestea, motzagoa 10 km. eta sei kontroletakoa. Ibilbidearen hasieran beharrezko materialak emango dira: kontrol txartela, kontrolen koordinadak, araudia... Helmugako kontrola eguerdiko ordu bietan itxi egingo da. Izen emateak, Murruxiko M. E. an egin daitezke edo Herriko Plazan izango den irteera kontrolean. Behin ibilaldia amaituta bazkari bat egongo da, jatera etorriko denak aurretik jakin erazi beharko du. Bazkariaren prezioa 1.500 pta.koa da. Bazkarirako izen emate epea ekainaren 9an itxiko da.

**Aretxabaletako
industrialdea, S.A.**

"ARINSA"

Basabe poligonoa "EO-10"
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA

**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
ARETXABALETA

**IMANOL
JANARI DENDA**

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA



Infantil mailako taldea txapeldun atera zen kopan

Lehen mailako infantilak txapeldun kopan

Bukatu dira futbol ihardunaldiak

Futbolariak urteko atsedena hartu dute. Talde batzuk beste batzuk baino denboraldi hobea egin dute baina atsedena merezitakoa dute denek.

Horien artean, Jose Angel Caberok entrenatzen duen lehen mailako infantil taldea Gipuzkoako kopan txapeldun atera zen. Azken honek Debako Amaikak bat taldearen aurka jokatu zuen Zumaietan. Binako berdinetaz bukatu zen partidua eta azkenean penaltien bidez erabaki zen txapelduna.

Beste aldetik, Josu Zubiak entrenatzen duen lehen mailako kadete taldeak liga irabazi zuen. Kopan ere oso ondo ibili

da taldea baina ez dute garaipena lortu.

Gainontzeko taldeak ere fin ibili dira. Erregional mailako taldeak, Euskal ligako jubentzen moduan kategoria mantentzea lortu du. Saillan penean erdi inguruan bukatu duten arren denborada ona egin dute. Kontutan hartu behar da Euskal ligako taldearen helburua kategoria horretan mantentzea zela.

Lehen mailako jubentzen ere garaipenarekin eman zioten bukaera denboradari. 1-2 nagusitu ziren Lazkaon. Daniel Armentiararen taldeak 4. postua lortu du saillan penean.

Preferenteko UDAk 4. postuan bukatu du denboraldia

Preferente mailako UDAk joan den maiatzaren 25ean jokatu zuen denboraldiko azken neurketa Irungo Real Unionen aurka. Emaita 2-5koa izan zen gure taldearen kontra. Golak Kermanek eta Kepak sartu zituzten.

UDAK 96-97 denboraldia 4. postuan bukatu du klasifikazioan, 67 punturekin. Lehenengo sailkatua Universidad izan da 80 punturekin. Guztira 38 norgehiagoka jokatu dira denboraldian zehar, horietatik 20 irabazi, 7 berdindu eta 11 galdu ditu. Golei dagokienez 71 gol sartu ditu eta jaso berriz, 56. Denboraldian zehar goiko postuetan mantendu da UDAko preferente taldea eta gorabehera haundirik gabeko denboraldia izan dela esan daiteke. Azkenean laugarren postuan bukatzea lortu du.

Aurtengo UDAko preferente taldeko pitxitxia Joseba Arana arrasatearra izan da, 16 gol sartu ditu. Kontutan izan behar da gainera erdilaria dela. Bigarrena Kerman gelditu da, azken hau 14 golekin.

Datorren urtera begira entrenatzaile berria izango du taldeak, Vittor Mujikak Alberto Perez arrasatearrari utziko dio lekua.

Joseba Larrinaga bigarren Espainiako gutxitu fisikoen 5.000 metroko lasterketan

Astebeteko kontzentrazioa Segovian egin ostean aurreko asteburuaran Granollers herri kataluniarrean ospatu ziren gutxitu fisikoen 5.000 metroko lasterketan bigarren izan genuen Joseba. Bere aurretik, Javier Conde sartu

zen. Datorren asteburuaran Europa mailako gutxitu fisikoen txapelketa ospatuko da Madril eta Josebak 5.000 eta 10.000 metroko lasterketak korrituko ditu. Josebak lehenengo hiruraren artean sartzeko itzaropena du.

BP Amaia-Berri, S.L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA


Tito Etxeandia

“Penaz utziko dut futbola”

Beste ume asko moduan lagunartean hasi zen Tito Etxeandia futboleko jokatzeko. Almeneko taldean lehenengo urratsak eman zituen, ondoren UDAko jubeniletara eta hemendik preferente mailara salto egin zuen.

UDAn federatu moduan 20 urte egin ditu. Tartean Alavesean (2. B dibisioan) eta Bergaran (3. mailan) ere jokatu du.

Aurten futbola uztea erabaki du eta aitortu digunez, penaz utziko du.



“Afizioz jokatzeko gogortasun guztiak joaten zaizkio kirolari”

• Urte asko eskaini diozu futbolari. Nola mantendu daiteke pertsona bat horrenbeste denbora futboleko?

Edozein kiroleretan jokatzeko oso gogorra egiten da afiziorik gabe. Afizioz jokatzeko gogortasun guztiak joaten zaizkio kirolari. Honez gain, inguruko jendeak ere asko animatu nau.

Etxean beti izan da futbola nagusi eta jarraitzeko animoak eman dizkirate.

• Nola hartu duzu futbola uzteko erabakia?

Tenporada bukaerarako nahiko nekatuta nengoan. Azken bi hilabeteak oso gogorrak izan dira. Hasiera batean ilusio handiaz hasi nintzen. Gainera, uste dut forma onean egon naizela eta ondo ibili naizela, baina bukaerarako ilusioa galdu dugu.

Beste aldetik, pena handia ematen dit futbola uzteak. Nire bizitzako une polit bat bukatu zait. Orain gustora hartuko dut atsede-

na, baina hemendik hila-bete batzutura antzemango dut bere falta.

• Zein oroitzen zaitzute UDAn ibilitako sasoiak?

Futbol munduan lagun asko egiten da. Gainera horrenbeste urtetan futboleko ibili ondoren, norberaren izakera ere asko lantzen da: seriotasuna, disziplinari, taldean jokatzeko ikastea...

• Zenbat gol sartuko zenituen futboleko bizitzan luzean?

Azken urteetan gutxi. Aurtengo denboraldian bi, bata aurkako portierian eta bestea nirean. Gazteagoa nintzen arineketak gehia-

go egiten nuen eta sarri helitzen nintzen beste portieriarik. Bergaran lehen urtean pitxitxia izan nintzen.

• Eta futbolari bizitzan lesio asko izan dituzu?

Ez, alderdi horretan zorte ona izan dut. Behin peronea apurtu nuen, hankako behatza beste behin eta eskuan ere lesio bat izan nuen.

• Futbola asko aldatu dela uste duzu?

Bai, jakina. Gaur egun gol gutxiago sartzen dira eta taldeen artean ez dago horrenbesteko alderik. Fisikoki jokalariek egoera hobean daude, entrenamendu gehiago egiten dira eta kirol instalazioak hobek

dira. Jokatzeko era ere aldatu da, pozizioak gehiago mantentzen dira. Lehen aukera gehiago zegoen atzelari bat aurrera joateko. Guzti honek futbola aspergarriago bihurtzen du ikuslearentzat.

• Zer nahiago duzu, lehenengo futbolaria ala Ibarra berria?

Futbol zelai berria nahiago dut, joku bizkorrago ematen badu ere. Futboleko jokatzeko eta entrenatzeko hobe da, beti egoera beretsuan dagoelako. Lehenengo Ibarra zaharrean, futbol desberdina ikusten zen, lokatza zegoenean esaterako eta horrek interesgarriagoa egiten zuen ikuslearentzat.

• Aurtengo denboraldia nola joan da?

Aurten oso aukera ona galdu dugu 3. mailara igotzeko, ez dugu aukerak aprobetxatu jakin. Orain bi hilabete partidu bi jarraian galdu eta ilusioak galdu genituen. Denboraldi hobe egiteko moduko ekipoa izan dugu, betarinoa eta sendoa. Etxean oso ondo ibili gara, partidu bi bakarrik galdu ditugu.

• UDAko harrobia zelan ikusten duzu?

UDAk oso harrobi polita duela uste dut, jubenilekin esaterako lan polita egiten da. Preferente mailan ez gara ausartu jende gaztea sartzen eta hori akats bat izan daiteke. Jende berria eta gaztea sartzea komeni dela uste dut, baina hauek ere badituzte euren trabak: ikasketak, disziplina desberdina...



Zamoran jaioa gaur egun Arrasaten bizi da Jesus Aparicio. Herriko komertzio eta auzoetan ogi banatzen ibiltzen da egunero. Hamabost urtekin heldu zion okin lanari eta dagoeneko 26 bat urte daramatza.

• 26 urte asko dira lanbide batean. Asko aldatu da hasieratik hona zure lana?

Bai, aldaketak izan dira. Kotxearekin askoz ere gutxiago saltzen da, jendea ez delako etxean egoten. Ogia bera ere, gutxiago kontsumitzen da. Orain askoz

“Gero eta ogi gutxiago kontsumitzen da”

ere ogi desberdin gehiago daude, integrala, normala...

• **Zenbat bozinazo ematen dituzu?**

Ez dakit zenbat diren, baina beti berdinak izaten dira.

• **Ze auzotan saltzen duzu gehien?**

Denetan antzera, agian Portasolen gehiago.

• **Zer ordutan hasten zara ogia banatzen?**

Goizeko 8etan.

• **Zein ogi mota saltzen da gehien?**

Barra normala, txikia gehien.

• **Zuk ogi asko jaten duzu?**

Bai, baina lehen baino gutxiago jaten dut.

• **Zeintzuk dira zure afizioak?**

Kirola egitea, telebista ikustea...

• **Zein kirol?**

Pelota, futbola... gustatzen zait.

• **Lan ostean zer egiten duzu?**

Batzutan ortura joaten naiz edo kafetxo bat hartzera lagunekin, erre-kaduak...

• **Etxean zer egiten duzu?**

Gauza gutxi, baina egin behar bada egiten dut, fregatua, bazkaria...

• **Lagunekin noiz elkartzen zara?**

Arratsaldetan kafetxo bat hartzeko.

• **Jubilatu ostean zer gustatuko litzazuke egitea?**

Ondo bizitzea. Okinen bizitza oso lotua da eta ez da behar bezala aprobetxatzen.

• **Periodikua irakurtzen duzu?**

Bai, egunero.

• **Sinestuna zara?**

Apur bat, baina ez dut asko praktikatzen.

• **Ezkondua?**

Bai.

• **Seme-alabarik?**

Seme bi.

• **Badute zure antzik?**

Txikienak apur bat, besteak emaztearen familikoen antza du.

• **Zer eskatuko zenioke gaur egungo gizarteari?**

Gaur egungo gizartean lan egiteko gero eta gogo gutxiago dago eta gizarteari bere lana ahalik eta ondoen egitea eta gogo gehiagorekin eskatuko nioke. Denon partetik gizarte arduratuagoa eta gaur egungo gizartean errespetu gehiago duena izatea, errespetua galduta dago eta.



Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskeraren elkartea



rrasateko San Juan eliza ondoan aterata dago goiko argazkia, 1945eko ekainean. Eukaristia kongresua ospatu zen urte honetan Arrasaten, "Adoración Nocturna" orduko parrokiako mugimenduak antolatuta. Egun handia izaten zen hau, normalean aurrean aipatutako taldeak urrezko ezteiak betetzen zituenean ospatzen zen. Egun handia zenaren seinale inguruko herrietako jendea ere batzen zela bertan, bailarako Gotzaidiaren barruan sartzen zen herrietako jendea. Kasu honetan Aretxabaletako parrokiako taldeko umeak Arrasatera joan ziren. Jaia egunez eta gauez ospatzen zen. Egunez, prozesioan Jaunaren gorputza goraiatzeko zen eta ahal zen eta hornituena jartzen zen guztia, kalea, altareak, aingeruak... Altarearen aurrean gelditu eta lorak jaurtitzen ziren. Dorletako Ama Birgina ere Arrasatera eraman zen egun hau ospatzeko. Kongresu eukaristikoaren amaiera Gotzaiak egin zuen, garai hartan Vitoriakoa bakarrik zegoen hemen inguruan.

Aurrekaldeko umeak aingeru jantzita agertzen zaizkigu, eta bertan atxabaltar batzuk ikus daitezke.

Argazkian ageri diren atxabaltar batzuk: **Mari Jesus Arenaza, Pili Olazabal, Pili Larrañaga, Mari Zabala, Mari Tere Etxebarriarteun, Mari Herce, Maritxu Lizarralde, X, Karmentxu Garciaetxabe, Angelita Larrañaga, Kontxita Iparragirre, eta Mari Tere Arenaza.**

Monagiloak: **Deunoro Bengoa, Juan Antonio Etxabe, Francisco Jabier Elkoro.**

Argazkia: Pili Olazabal

LASA
AGUILERA
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekararren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Mitartegarai
Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

Lie

Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

LEIBER
ARRAINDEGIA

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

Artista gazteak



Ekainean sartu gara. Maiatza euritsu bukatu eta ekaina ere berdintsu hasi dugu. Ez dakit aurtengo gona eta soinekoak noiz jantziko ditudan. Eskerrak udan oraindik ez garen sartu. Eguraldi kontuak gorabehera, euriari umore onez begiratzen jakin zutenak **Martin Antxia** eta **Garazi Oianguren** izan ziren. Legutianon ospatu zen txistulari txikien egunean parte hartu zuten astebukaeran. Beste 100 gaztetxorekin batera txistu kontzertu dotorea eskaini zuten. Baditugu herrian Demetrio Iriarte zenaren jarraitzaileak.

Batzuk txistuarekin trebeak diren bitartean, bertsotan ondo egiten dutenak ere badira. Kasu honetan **Lur Delgado**, 10 urteko neskatxa dugu artista gaztea. Gipuzkoa mailako eskolarteko bertso paper txapelketan irabazlea izan zen. Ume mordo

aurkeztu zen, baina Lurren bertsoek izan zuten, besteek ez bezala zeozer berezia. Erabili zuen gaia: "umeok, zergatik daukagu jolasteko beharra?". Gaia behintzat oso egokia aukeratu zuen. Zorionak eta animo bertso munduan.

Eta esaldi horri erantzuteko ludotekara salto egingo dugu. Hori baita umeek jolasteko leku aproposa. Umeak hain burubelarri ibili diren ludotekako jokuteka lehiaketa bukatu zen eta sari batzuk zozketatu ziren bertan. Sariak: **Ane Martin**, **Mikel Iturri** eta **Kattalin Antxia** izan ziren. Hauek bai zortea. 80 neska-mutikok parte hartu dute jokuteka lehiaketan. Baina ziur nago hiru sarituek beste askok moduan galdera gehienak ondo erantzungo zituztela. Herriko kontuetaz beste edozeinek baino gehiago jakingo dute.

Hurrengo aipatuko ditudanak hain gazteak ez diren arren, herriko umeentzako pailaso emanaldia ematera etorri zirenak dira: Txoronpio, Pantxi eta Pantxo pailasoak. Aurreko astean Zaria zineman gaztetxo mordo izan zen pailasoen emanaldian. Txoronpio gainera, atxabaltarra da: **Dabid Errasti**. Beste taldekideak, Teresa Lopez de Munain eta Josean Bengoetxea dira. Ziur ondo pasatuko zutela umeek hiru pailasoen xelebrekeriekin.

Beno euria hasi du osteraren ere, eta erropak jaso beharko ditut balkoitik. Ez ahaztu ekaina ekintzaz beteta datorrela, musika, korua, kontzertuak, mendi ibilaldiak, jaiak... Ez utzi aukerak pasatzen.

LANA

- Umeak zaintzeko emakume bat behar da. Tfnoa: 79 00 14 (deitu 7etatik aurrera).
- Magisteritzan diplomatuak klase partikularrak emango lituzke (BO2 arte). Tfnoa: 79 75 23.

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoirra edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.

ETXEBIZITZA

- Aretxabaletan ileapain-degi mixtoa alokagai dago. Solariuma eta edertze aretoa ditu. Lokal argia da. Herriaren erdian. 60 m²koa. Instalazio guztiak ditu eta funtzionamenduan. 77 12 70/79 94 39.
- Etxe bat alokagai dago Santa Kurtz, 8 zenbakian. Tfnoa: 79 08 05.
- Garajea alokagai dago Lausita 5. zenbakian. Tfnoa: 79 05 38 (dendako ordutegia).
- Aretxabaletan pisu bila gabiltza. Tfnoa: 79 10 93.

DENETARIK

- Motor bat salgai. Kawasaki Vulcan. 77 00 62 (arratsaldez 3etatik aurrera).
- Behar ez duzun orde-nagailuren bat baldin baduzu deitu Saretxora. Tfnoa: 79 10 51/79 01 05.
- Remolkea salgai. JB-150 modeloa. Soporte eta aldatzeko erruerekin. Berria da, ezin izan dugu erabili. Oso prezio egokia. 79 81 78.
- Kanping denda salgai. 3 logela, sarrera eta aterpea. Harremanetarako deitu 77 11 45 telefonora.
- Renault 5 GTL kotxea salgai. SS-P. Egoera onean 77 93 30-79 81 35.
- 4/5 plazatako karabana erosiko genuke. Tfnoa: 79 77 85.
- Siberiar husky txakurkumeak salgai. Perigri bikainekoak eta prezio ezin hobean. Tfnoa: 79 59 85. (Anagatik galdetu).
- Aterkina galdu nuen apirilaren 30ean Korueta inguruan. Aurkitu duenak deitu 79 75 53 telefonora.
- Bizikleta bat (paseokoa) **emateko** daukat. Egoera onean. Tfnoa: 77 01 74. Gaez.



HITZ GEZIDUNAK

		*Izena	Makurtu	Utziak	Gerlakai
		Ez gizona	VIII. hilabete	H ₂ O	Irabaziak
		Dirudun			
		Seguru			
				Neroni	
				Barrea	
Aulok utzeko lekua	Pare bat	Sarginak			Lehenengo
Eliz gizon	Sortu	Bilaukeria			
			Asiako herrialdea		
			*Deiura		
Artsenikoa		Beldur larri		Raentgen	Nukleo hasieran
Arnoz hornitu	Galdetzeko			Borratua	Bigarrena
			Gipuzkoako herria	E I B A R	
			Munduratu gaituzena		
Kuia					Kriplana
Lehen zenbakia					Bili
		Peruko hiriburua		Lehana	Bakala
				Ekialdea	Ofentsa
Luxemburgoko autoelatan		Lore-mala			
Musika-nota		Lady ezaguna			
	Deialdi		Bakala	Boita	
	...ian, ihardun		Nafarroako ibilgailuetan	Azkena	
Kai aldera					Nar pluralean
Gure planeta					Musika-nota
	Bat	Urrea		Esaten du	
	"Zorro"ren seinalea	Palasioa		Mila	
Adiezaki			Aita edo amaren ama		

HABE

Hitz gezidunak ondo erantzuten duten lagunen artean ekainaren 20an Arrasateko kiroletxean **La Polla, Dixebra, Koma, Latzen** eta **PI LT** taldeen kontzertua ikusteko sei sarrera zozketatuko dira. Kontzertua Arrasateko CCOO, LAB eta ESK sindikatuek antolatu dute Asturiaseko Duro Felguera lantegiko langileen alde.

LEHIAKETA

IZEN-ABIZENAK

TELEFONOA:

Erantzuna bidali kultur etxean dagoen buzoira edo eta 151 postakutxatilara ekainaren 13 baino lehen.

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

Etxabe harategia

Durana 4
☎ 79 16 61



Liburutegian aldizkari berriak

Udal liburutegiak aurten harpidetza berriak egin ditu aldizkarietan eskeintza zabalago bat emateko, batez ere euskarazko aldizkarietan, eta jende gehiago erakartzeko helburuarekin.

Alde batetik **Elhuyar** zientzia eta teknika aldizkariaren harpidetza berri du, lehen Eusko Jaurlaritzatik zetorrena eta gai zientifikoak euskaraz tratatzen duen hilabetekari baka-rretakoa.

Haurren sailean **Xirrixta** aldizkaria jasotzen jarraituko dugu, desagertear egon ondoren berri ere kalean izango den 4-8 urte bitarteko haur-entzatzat. Gainera aurten **Kometa** aldizkaria ere jasoko dugu, 8 urtetik gorako haur-entzatzat aterako den aldizkaria; biak harpidetza bidez lortu daitezke bakarrik.

Gazteak kontutan hartuz eta hauek musika zaleak izaten direnez, musika aldizkari pare bat ere hautatu ditugu: **El Tubo eta Entzun!**, euskaraz argitaratzen den musika aldizkaria eta bi hiletik behin kaleratzen dena. Bukatzeko aipatu beste 70 aldizkari inguru ere jasotzen ditugula eta harpidetza gehiago egiteko asmoa ere badugula.

Joseba Lopez de Armentia

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

G U R E A

*taberna
jatetxea*

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

**IBARRA
ESTANKOA**



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**Mobiliario
ARENAZA**

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABAETA

EKAINA

7
zapatua

**BAZKARIA KURTZEBARRI
ESKOLAN**

Kurtzebarri eskolako guraso, irakasle eta ikasleek bazkaria egingo dute Kurtzebarri eskolan.

I.go PALA TXAPELKETA

Goizean eta arratsaldean finala eta semifinalak jokatu dira kiroletxean.

8
domeka

**PARAPENTE
KONTZENTRAZIOA**

Arrasateko Ikarus taldeak antolatuta. Kurtzebarri menditik salto egingo dute goizean.

MENDI IRTEERA

Murruxiko M.E.ak **Txindoki** mendira egingo du irteera. Goizeko 9etan partenoitik irteera. Itzulera 6,30etan.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Kanpazar-Matienea-Durango-Zornotza-Autzagane-Gernika-Autzagane-Zornotza-Durango-Kanpazar- Durango-Kanpazar-Arrasate-Aretxabaleta. 100 km.

FINALISTAREN EGUNA

Eskolarteko X. mendi lehiaketa. (Elgeta-Bergara) Ekainaren 8an. Elgetan hasiko da ibilaldia 9etatik aurrera eta partehartzaileak herriko plazara joan beharko dira. Bukaera, berriz, Bergaran izango da.

15
domeka

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN XIX. ORIENTAZIO IBILALDIA

Irteera ordua goizeko 8,30-9,30etan Herriko Plazan. **Murruxiko M. E.**aren antolakuntzaz.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-Arroiabe-Gamarra-Abetxuko-Apodaka-Mungia-Orio-Zarate-Gopegi-Ollerias-Landa-Aretxabaleta. Guztira: 102 km.

KONTZERTUA

Kontzertu lirikoa, Zarzuela eta Operaren Aria eta Romanzak. **Maria-txen Urkia** sopranoa, **Aitor Kami-ruaga** baxua eta **Isabella Blezienen** pianoaren laguntzaz. Arratsaldeko 7etan Andra Mari parrokian. **Leizarra musika eskola eta Aretxabaletako abesbatzaren** eskutik.

OPEL

■ *Kotxe marka guztien konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Garaje T. NORTE, S.L.

Zerbitzu Ofiziala



Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 / Fax: 79 62 65 • ARETXABAETA



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

16-19

KURTSO AMAIERAKO KONTZERTUAK

Arratsaldeko 6etan musika eskolaren aretoan. Musika eskolako umeen emaldiak.

19
eguna

DIPOSITIBA EMANALDIA

Peru, mendikate zuria. Hueskaran, Alpamayo, Machu-Pichu, Cuzco, Huaraz. Emalea: **Luis Urkia** "Taxito". Arratsaldeko 7etan Loramendi elkarte-an.

20
egukotxa

KONTZERTUA

Asturiaseko Duro Felguera lantegiko langileen alde. Langileen kaleratzeak direla eta borrokan dihardute. **La Polla, Dixebra, Koma, Latzen eta PI LT.** Gaueko 10etan Arrasateko kiroldegian. (1.000 pta. aurrez 1.200 pta. takilan) Arrasateko sindikatuek antolatua, CCOO, LAB eta ESK.

20
egukotxa

ORGANO, TXISTU ETA KORUAREN KONTZERTUA

Txistuan **Iñaki Barrena**, organoan **Jose Luis Frantsesena** eta **Aretxabale**tako abesbatza. Gaueko 9,30etan parrokan. Leizarra musika eskola eta Aretxabale-tako abesbatzaren eskutik.

21
zapatua

MUSIKAREN EGUN BEREZIA

Kalejira eta kontzertua. Arratsaldeko 6etan Herriko Plazan.

OHARRA

Andra Mari jaiak iragarriko dituen kartela, informatika euskarrian (disketea) ere aurkeztu ahal izango da, Din A3 tamainako paperean inprimatua.

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi E.E. 77 09 70
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN XIX. ORIENTAZIO IBILALDIA

Ekainaren 15ean. Irteera ordua goizeko 8,30-9,30etan Herriko Plazan. (Murruxio M. E.aren antolakuntzaz).



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8 Aralar z/g
Tfnoa: 79 19 34 Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

sofa
leku



a. eme... interiores



centro
hogar
muebles



grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03

a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92

centro hogar muebles, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92

sofa leku, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92